

Euzkadi Europa'n

Tierra Vasca, 121. zk., 1966-07: 6.

Gure erri zarraren bizi-bide berria aukeratzeko garaia elten ari aigu.

Nekaldi luzen izandu da; bañan azkenean, nekearen ondoren, Arana Goiri'tar Sabin'ek esnatu zuan euskotarren erri-oso izate naia, Euzkadi izate naia, or dator, danon bixtan, nagusitzen.

Len gure urka zeuden "gorriak", orduko gorri bildurgarri niek, orain gure eskubideak aitortzen ari zaizkigu. Ez dira, bear bada, guk nai ginduzteken neurrietara iritxiko, bañan aitortz garrantzitsua da, nola nai.

Entzun itzazute Naparro'ko "Los amigos del país" agintariak Baiona'n orain dala egun gutxi Euskal-Erriaren batatsunatzaz gure erri oso bat izateatzaz, esan dituzten itzak.

Irakurri itzazute Ridruejo, falanjusta-izanduak, idatzi dituanak; irakurri errege-zale batzuek aitortzen ari diran beste asmoak.

Entzun itzazute orain dala gutxi gure aberkide ta abertzale bildurge dan Kristian Etxoluz'en juizioan, Iruña'n bertan, bere defesoreak esan dituanak: alegia, Euskal Erria, naiz eta bi puzka eginda egon, erri-oso ta bakar bat dala, ta Europa'ko aurrera-bidean bere toko berezia ba duala. Ta au oraingo agintarien aurrean esatea ez da gutxi.

Irakurri itzazute Ipar-Euzkadi'ko gure anaiak Euzkadi-oso batetzaz, Europa'ren etorriatzaz, esaten ari diran asmoak.

Eta ara, goitik bera, eskubitik ezkertera, gue erri izate ta gure buruaren jabe izatearen aitormen pozgarri bat besterik ez da.

Orain artekoak luzeak eta gogorrak izan ba dira, emendik aurrerakoak ez dira motxagoak eta biguñagoak izango.

Garaia eltzen danean, erri bat bezela jokatu bearren gera. Orain Europa'n gure buruaren jabe bezela sartzen ez bajera, gureak, erri bezela, egin du.

Ez dezagun orain arte egindako lanik galdu; ez gaitzala, askotan ixtorin gertatu izan zaigun bezela, arrokeriak ito.

Guk erri bezela jokutzen ba degu, Euzkadi ez da Europa berriaren erakundetik kanpora geltituko.